

eskola txikietako
N. TOPAKETAK



2010ko ekainaren 28an Durangoko Institutuan

04

Gela matematikarien elkargunea

Eugenio Sasieta Leunda

06

Elogio a la educación lenta

Irakurketa Dialogikoa

10

Bagara badugu

Nora Salbotx Alegria

12

Tailerrak

Matematikakoak · Zirkoa · Guraso tailerra

Gela matematikarien elkargunea

Eugenio Sasieta Leunda
Antzuolako Eskola

Gelan elkartzen diren pertsonen norabidea eta intentsioa **ULERMENA** denean, hainbat prozesu eta esperientzi sortu eta bizi dira bertan.

Ulertzeko desioa eta ulertu nahi den errealitatea harremanetan jartzen direnean, arazoez beteriko egoera eta une konplexuak azaltzen dira. Eta arazo hauei aurre egitean, gela, hainbat ahotsen topagune bihurtzen da.

Ahots hauen artean bereiz ditzakegu:

- Ikaslearenak, bere pentsakerak, arazoak konpontzeko bideak, adierazteko moduak, iritziak, arrazoiak, kalkuloak... bestei kon-tatzen dizkiogunean.
- Taldearenak, partaide guztien ideien azterketatik eta komunikaziotik sortzen direnak, intentsio eta desio berriak adierazten dizkigutenak, horretarako erabiliko dituzten moduak, interpretazioak...



- Kulturarenak, gizarte, aditu, guraso, ikasle nagusiago eta historiatik... iristen zaizkigunak.

Beraz, horrelako testuinguruetan, gela, ikasle bakoitzaren izaera matematikoa azalarazteko, aukera ematen duen gunea da. Eta ondorioz, batzuren eta besteen arteko izaera anitz have-tatik, prozesu matematiko emergenteak sortze-ko gai.

Gelak, egoera horretan, matematikarien ko-munitate kutsua hartzen du, partaideen arteko konekzio edo loturagai matematika delarik.

Horrela, matematikan murgiltzeko eta hazteko modu hau gelaren identitatearen ezaugarri bihurtzen da.

Elogio a la educación lenta

Irakurketa Dialogikoa

Irakurketa Dialogikoa / Literatur Solasaldiak

Testua/Texto a de las mariposas (Rivas, M.)

NOLA EGIN

Irakurri testua eta paragrafo batek/batzuek atentzioa ematen badizu/te, azpimarratu eta nahi baduzu edo uste duzu beharrezkoa dela gogoratzeko, idatzi paper batean (txuleta moduan) zergatik aukeratu duzun, hau da, zeintzuk izan diren azpimarratzeko arrazoiak.

Saioan, aukeratuko paragraforen bat edo batzuk (denboraren arabera) irakurri ahalko duzu/dituzu ozenki. Irakurri baino lehen, esango diguzu zein orrialdetan aukeratu duzun paragrafoa eta, gutxi gora behera, non dagoen (goian, erdian, behean...). Irakurri eta gero, adieraziko diguzu zergatik aukeratu duzun paragrafo hau, zer den atentzioa eman diozuna (gustatu zaizulako edo ez zaizulako, zer edo zer gogorarazten diozulako, berarekin bat zatozelako edo ez zatozelako, ederra delako...), hau da, nahi

duzuna; hori bai, ez du balio argatik esateak, zeren eta argudioek agertu behar duten beti. Azken finean, iruzkin bat da, baina ez da testu-iruzkin, pertsonal-iruzkin baizik. Gero, solasaldikideren batek, zuk esandakoari buruzko zer edo zer esan nahi badu, edo irakurritako paragrafoari buruzko komentario pertsonala egin gura badu, une egokia da egiteko. Eta horrela jarraituko dugu denbora amaitu arte.


Lectura Dialógica / Tertulias Literarias

Testua/Texto: La lengua de las mariposas (Rivas, M.)

INSTRUCCIONES

Lee el texto y si algún párrafo/s te llama/n la atención, subráyalo/s y, si quieres, o crees que es necesario para recordarlo, escribe en un papel (como si fuera una chuleta) por qué lo has elegido, es decir, las razones que has tenido para marcarlo.

En la Tertulia, tendrás oportunidad de leer en voz alta el/los párrafo/s (según el tiempo de que dispongamos). Antes de hacerlo indicarás en qué página están y dónde lo podemos localizar (arriba, en medio, abajo...). Después de leerlo nos comentarás por qué lo has elegido, qué es lo que te sugirió o qué es lo que llamó la atención (porque te gustó o porque no te gustó, porque te recordó algo o a alguien, porque estás de acuerdo o en desacuerdo con lo que dice, porque es bonito...) lo que no vale decir es: porque sí o porque no; ya que lo que ha de primar son los argumentos. Como verás, es una especie de comentario, no de un comentario literario, sino de un comentario personal. Luego, si algún/a contertulio/a quiere opinar sobre tu comentario o, simplemente, comentar el párrafo que has leído, es el momento adecuado. Y así iremos consumiendo el tiempo que dediquemos a la práctica.



Qué me quieres amor

Manuel Rivas

La lengua de las mariposas

A Chabela

“¿Qué hay, Pardal? Espero que por fin este año podamos ver la lengua de las mariposas.”

El maestro aguardaba desde hacía tiempo que les enviaran un microscopio a los de la Instrucción Pública. Tanto nos hablaba de cómo se agrandaban las cosas menudas e invisibles por aquel aparato que los niños llegábamos a verlas de verdad, como si sus palabras entusiastas tuviesen el efecto de poderosas lentes.

“La lengua de la mariposa es una trompa enroscada como un muelle de reloj. Si hay una flor que la atrae, la desenrolla y la mete en el cáliz para chupar. Cuando lleváis el dedo humedecido a un tarro de azúcar, ¿a que sentís ya el dulce en la boca como si la yema fuese la punta de la lengua? Pues así es la lengua de la mariposa.”

Y entonces todos teníamos envidia de las mariposas. Qué maravilla. Ir por el mundo volando, con esos



trajes de fiesta, y parar en flores como tabernas con barriles llenos de almíbar.

Yo quería mucho a aquel maestro. Al principio, mis padres no podían creerlo. Quiero decir que no podían entender cómo yo quería a mi maestro.

Cuando era un pequeñajo, la escuela era una amenaza terrible. Una palabra que se blandía en el aire como una vara de mimbre.

“¡Ya verás cuando vayas a la escuela!”

Dos de mis tíos, como muchos otros jóvenes, habían emigrado a América para no ir de quintos a la guerra de Marruecos. Pues bien, yo también soñaba con ir a América para no ir a la escuela. De hecho, había historias de niños que huían al monte para evitar aquel suplicio. Aparecían a los dos o tres días, ateridos y sin habla, como desertores del Barranco del Lobo...


Bagara badugu

Nora Salbotx Alegria
Amaiurko Eskola

Landa eremuko eskolak euskal herrian

Landa eremukotasunaren ideia bera ezbaian jartzen den garai hauetan, kontrako norabidean doazen bi indar fluxu topatzen ditugu; alde batetik globalizazioaz hitz egiten zaigu, munduan bertze aldeko pertsonekin interkonektaturik, kultura, pentsamolde eta kontsumo moduen berdintzailea, bateratzailea akaso, den indarra. Bertzaldean berriz, identitatearen inguruko diskurtso eta atxikimenduak; ohitura zaharren berreskuratzeak, kultur ondarearen babesteak, memoria eta Ama-Lurraren aldekoak, etorkizunari aurre egiteaz ari gara beraz, aurrera iraganari begirada kendu gabe.

Eta testuinguru honetan, gure eskolak, izena duenak izana baduela irakatsi diguten euskal hiriko (?) auzo eta herri txikietan. Izen anitzeko izana gurea. Izan, bagarela erakusten, aldarrikatzen, defendatzen, justifikatzen, azaltzen jardun baikara,



gurea hizki larriz idatzi daiteken izena denean,

Eskola: herri txikietan bakarra, bera, betikoa, baserri zein herritar berri eta zaharren topaleku, bizindarren erakusgarri, etorkizunaren erakusleiho.

Majia darie gure eskola txikiei, biziraun dutelako, eta, bizirautearekin aski ez eta euren izate berezituaz erne, geroari begiratu diotelako, sustraiak ongi errotuta, garai berriak ikusi eta ikasteari ekin diotelako.

Eta honela, eskola txikia herrian den bezala, herri txikia eskolan da, herria, eta eskola ere, plazan, elizatarian, azokan, tabernan, sukalde eta ukuiluetan, jolasparkean, mendi zein erreka bazterretan, arbelean edota plastilina lantzen duen haurren esku txikietan baita. Herri-*eskola* beraz, eguneroko harremanetan eta denen artean eraikitzen duguna, komunikatuz, eta komunikatzen garelako, heziz eta ikasiz, hezkuntza komunikazioa baita, ezberdinen artekoa, pentsamoldez, lanbidez, gogoz eta adinez ere ezberdinak garenak; **bitza bera alegia, horixe baita eskola txiki bat.**

Tailerrak

Matematikakoak

Non bizi gara?

Arrankudiaga, Areatza eta Zeberioko Eskolak
Nekane Otsoa

JUSTIFIKAZIOA

Non bizi gara? proiektua 4 eta 5 urteko ikasleei zuzenduta dago. Iraupena hiru hilabetekoa izango da gutxi gorabehera.

Gaia umeen interesetatik, beharretatik eta jakin-minetik sortu da. Eurak dira protagonistak eta eurak aukeratzen dute zer nahi duten jakin eta zer landu.

Umeek uneoro jakin behar dute zertan dabilzan, zertarako eta zergatik.

Proiektu honek gelako bizitza, mundua eta errealitatea ulertzera eta norbera eta besteak ulertzera bideratuta egon behar du; gure kasuan, herria da umengandik oso hurbil dagoen errealitateetako bat.

HELBURUA

Gure helburua da proiektu esanguratsua, hurbila eta errealitateari lotua izatea. Hori dela eta, gure helburu nagusia **geure herria ezagutzea** da.



METODOLOGIA


Gure metodologiak ikuspegi eraikitzailean du oinarri, hots, ikaslea bera da bere irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eraikitzen duena.

Honela, proiektuetan oinarritzen gara eta gelan ez dugu ikaslibururik

erabiltzen. Ikasleek eurek esaten digute zer ikasi nahi duten, eta irakaslearentzat horixe izango da abiapuntua, ondoren lan hori osatzea da gure eginkizuna (beti umeez aurrez zer dakiten kontuan harturik).

Oso garrantzitsua da besteen iritziak ezagutzea eta errespetatzea, arazoei aurre egiteko erantzunak bilatzea, argudiatzen ikastea, eta horrekin guztiarekin umeen arteko interakzioa sortzea.

Gure proiektua globala denez, arlo guztiak hartzen ditugu kontuan: hizkuntza, matematika, plastika, ingurune eta jarrerak...



Tailerrak

Matematikakoak

Matematika Bigarren Zikloan

Arrankudiagako Eskola
Nekane Otsoa

TAILERRAREN HELBURUA

Tailer honen helburua zera da: praktika onen adibide zehatza ematea. Izatez modu asko daude zentzu handikoak testu liburuetatik at matematika gelan lantzeko.

GAIA/ ARDATZA

Bi proiektuen arteko trantsiziozko egoera batean gelan egunkariak hasi ziren agertzen. Haiei deigarriak egiten zitzaizkien berrietan gelditzen ziren eta haien artean honako hau:

“El 85% de los docentes de colegios públicos puede dar clase en euskera”



Honetan oinarriturik galderaK eragin zaizkien:

- Zer esan nahi du %85-ak?
- Zer ulertzen duzu zuk?
- Zer uste duzu dela hori?

Haur bakoitzari papera ematen zaio bertan bere eran guzti hori adierazteko. Haurren usteak agertzen hasten dira **GELAKO POLIFONIA** sortuz. Horrela ikaskuntza dialogikoa aurrera eramaten da...

Tailerrak

Matematikakoak

ERANTZUNAK

- **Haurrek ez dute eskolan bakarrik ikasten.** Gauza asko dakikizkitez...
- Gizarteak portzentaiak nola interpretatzen dituen balioa ematen dio ikerketari eta gelan egoera berriak agertzen dira...
- Egoera problematiko gehiago agertzen dira gurasoekin elkarrekintzan...
- Beste alde batetik kalkulagailuak ere daude hain zuzen kalkuluak egiteko balio dutenak...
- Bizitza errealeko beste testuinguruak topatzen ditugu portzentaiak erabiltzeko aukera ematen dutenak...



Prozesu osoa adibide oso ona izan da **Carlos Gallego**-ren hitzetan **“Espektatiba handiko jarduera”**-rena hain zuzen. Askotan testu liburuak ekartzen dituztenak baino konplexuagoak, dudarik ez esanguratsuagoak, eta indartsuagoak.


Matematika lantzeko testuinguru egokiak bilatu behar dira. Horretarako nahiko izaten da bizitza matematikako betaurrekoekin begiratzea.

ESTRATEGIAK

- Talde giroa asko landu behar da, behar beste denbora eskainiz.
- Norberaren ideiak paper zurian adierazten dira, denenak baliagarriak direla azpimarratuz. Barneko ideiak adierazteko prozesuan bitartekari bezala balio daitekeen edozer elementu onartzen da: irudiak, letrak, eragiketak... Horrela guztionak onartu eta kontutan hartzen dira.
- Hortik abiatuta, guztion prozesuak ulertzen saiatzen gara.

“Reconocerse y reconocernos como personas de valor”

Carlos Gallego



Tailerrak

Zirkoa

Txalburu Eskolako Proiektua

Abaltzisketa

ZERGATIK "ZIRKOA"?

- Mugimen gaitasunak hobetu eta aberasteko.
- Taldeko harremanak hobetzeko eta lankidetzan trebatzeko.
- Jarduera berria eta motibagarria ikasleentzako, zirkoa ikasleentzako mundu erakargarria eta magikoa delako.
- Taldean lehiakortasun ezkorra sumatzen zenez programazio egokitzapena: zirkoa eta natur ekintzak.
- Inklusioa eta hezkidetzaren garatzeko jarduera oso egokia delako. Denentzako jarduera da.



- Norberaren egoera fisikoa hobetzeko.
- Ikasleen garapen motriza bultzatzearekin batera garapen osoa bultzatzen delako (Soziala, afektiboa eta kognitiboa).
- Gorputz adierazpeneko gaitasunetan eta sormenaren garapenean hobekuntzak.


KONPETENTZIAK

Zientzia-teknologia eta osasuna kulturarako gaitasuna:

- Zirkoko jardueren bidez osasuna hobetzera bideratutako egoera fisikoaren hobekuntza.
- Gorputzaren ezagutza, higiene ohiturak, jarduera fisikoaren praktikaren hobekuntza.
- Sedentismoaren arriskuen ezagutza.
- Jarduera fisikoa, osasuna eta bizi kalitatearen erlazioaren ezagutza.
- Gaitasun pertzeptibo eta motrizen garapena.
- Norberaren ezaugarri, trebetasun eta abilezien ezagutza eta onarpena.

Ikasten ikasteko gaitasuna:

- Ikasteko norberak dituen ezaugarri, strategi eta metodologi ezagutza.
- Ikasteko gustua, motibazioa, ahalegina eta helburuetara iristeko bere buruan konfiantza.
- Egindako lanaren inguruan auto-erregulazioa eta auto-ebaluaketa.
- Besteekin eta besteengandik ikasi.



Tailerrak

Zirkoa

- Ikasteko ardura eta konpromisoa.
- Akatsak onartu eta hauetaz ikasteko aukera.
- Metodologi mailan ikerketa, aurkikuntza, lan-esleipena eta arazoaren konponketa.
- Matematikarako gaitasuna:
- Espazio-denbora, espazio egituraketa eta elementu geometrikoen ezagutza.
- Koreografia, musika eta emanaldi osoaren prestakuntza denbora neurketa-antolaketa zehatza.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna:

- Gaiarekin lotutako Web orrialde ezberdinen bisita.
- Komunikazio teknologien erabilpena: eskolako aldizkaria.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna:

- Zirkoko hiztegi zehatza. Honez gain, Taldeko lanean




elkarrizketa beharrezko tresna bezala. Ideiak, azalpenak eta argudioak ematen eta entzuten jakitea.

- Kritika eraikitzaileak onartzeko eta egiteko ahalmena.
- Taldean norberak eman dituen mugimen erantzunak eta izan dituen bizipenak eta emozioak ahoz azaltzeko eskaera.
- Kideekin komunikatuz erlazio eraikitzaileen antolakuntza.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna:

- Lankidetzeta, elkartasuna, taldeko kide nortasuna. Norberaren ekarpena.
- Norberaren eta taldearen interesak batera baloratzea.
- Arduren banaketa eta parte hartzea.
- Taldeko arazo eta gatazken aurrean elkarrizketa, negoziazioa.
- Norberak eta besteek dituzten ezaugarrien onarpena.
- Ardurak hartzen ikastea, autonomia garatzea.
- Arauen onarpena.
- Ahalegina eta taldekideen arteko harremanen balorazioa.



Tailerrak


Zirkoa

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna:

- Kultur eta jarduera fisikoen aniztasunaren balorazioa.
- Artea balioesteko komunikatzeko, sentitzeko trebetasun eta zentzu estetikoaren beharra.
- Ekoizpen artistikoak hauteman eta ulertzeko gaitasuna.
- Herriko jaietan (Inauterietan) herri osoari emanaldia eskaintzea. Bertako kultura eta beste kulturatako balioen ezagutza eta errespetua.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna:

- Erronka berrien aurrean erabakiak hartzeko gaitasunaren bultzada. (Norberak edo lankidetzan taldean).
- Arazoei aurre egiteko, akatsetatik ikasteko eta arriskuak hartzeko ahalmena.
- Norberak bere buruarekin duen konfiantza, autokritika gaitasuna eta gainditze ahalmena garatzeko tresna.



GORPUTZ HEZKUNTZAKO HELBURUEKIN LOTURA

- Norberaren gorputzaren hautemate- eta mugimen-aukerak aztertzea eta gauzatzea, nor bere buruan arreta jartzeko eta konfiantza hartzeko; horrela, norbera ongi sentitzea onuragarria izango da osasunerako.
- Sarri, aldizka eta neurrian egiten den jarduera fisikoaren balorazio positiboa egitea, nor bere buruarekiko eta beste pertsonetikiko jarrera arduratsua adierazteko; horrez gainera, jarduera fisikoak, higieak, elikadurak eta jarrera-ohiturek osasunean zer-nolako ondorioak dituzten jakitea.
- Trebetasun eta ahalmen fisikoak garatzea, oinarritzko mugimen-trebetasunak haurren bilakera-prozesuari jarraiki gara daitezen; horretarako, ekintza-jokoak egingo dira.

NORI ZUZENDUA DAGO

Unitate didaktiko hau, Lehen Hezkuntzako laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleekin lantzeko prestatua dago. Unitate didaktikoa eta saioak aurrera eramateko haurren adimen maila, gaitasun motore eta esperientzietatik abiatuko gara.

Tailerrak

Guraso Tailerra

Hiritartzen duen eskola VS. landa eremuarekiko begirunezko eskola

Eskola Txikien inguruan, ereduaz eta metodologiaz askotxo hitz egin ohi dugu. Bada berriz, ahaztu xamar gelditzen den eztabaida bat eta zera da: nolakoa beharko du izan Eskola Txikia baldin eta bere ingurune hurbileko landa eremukotasun horrekiko begirunezko jarrera bat agertuko badu? Testuingurua kontuan hartuko badu? Eta huraxe izan da hain zuzen ere tailer honetan jorratu nahi izan dugun gaia.

Oraingo honetan beraz, psikologia eta hezkuntzaren ekarpenetaz haratago, nahiz eta horiekin bat egiten duen ikuspegi batean oinarrituta, komunikazioaz solas egin dugu, komunikazio dialogikoaz eta honek, eskolaz eta kontestuz ari garenean, suposatuz dezakeenari buruz.

Modu honetan, komunikazio interaktibo baten alde gaudeneko oinarritik abiatuta, honen nolakotasunari arreta jarri beharrez gaude hasteko eta behin, harreman partehartzaile, potentzial (mezu ez




bukatuak, anitzak, moldagarriak, interpretagarriak,...) eta bi norabidekoak defendatuko ditugularik. Gauzak horrela, binorabidekotasan honen inguruan hausnartzea dagokigu, gaur eguneko Euskal Herriko nekazal eremuaz, herri eta auzo txikiez, landa eremu berriaz, hausnartu eta hauen eta eskolaren arteko harremanaz pentsatzeko unea hartu nahi izan dugu tailer honetan beraz.

Eztabaidarako gida edo aitzaki modura galdera simple bezain sakon bat proposatu dugu: **“landu eremu horrekiko begirunezko jarrera agertuko lukeen eskola txikia nolakoa izan beharko du?”**


Eta erantzunetarako lagungarria izanen litzazigukeelakoan, **landu eremua kontuan hartzen duen eskola vs. hiritartzeko asmoa duen eskola** dikotomia proposatu dugu. Hitz batean, eskola txikiei buruzko ikuspegi topografiko hutsa gainditu eta bere izateaz, moldeetaz, edukietaz, etab. hausnartzen hastea izan da helburua...

...Gure herriaren historian bizitzea egokitu zaigun puxkatxo honetan, Eskola Txikien nolakotasun eta rolaz hausnartzea zen erronka, edo hausnarketa hori abian jartzea bai behintzat. Gai honen inguruan, ekainan Durangon lehen urratsak eman ditugu guraso tailerrean. Orain horretan jarraitzea litzateke erronka¹.

¹hausnarketa hau Eskola Txikietako partaide garen denen artean baino osatu ezin denaren ustetik abiatuta, eztabaidarako gune bat sortu dugu <http://listhings.com> tresna digitalaren bitartez. Bertan parte hartu nahi izanez gero, gonbidapen eskaera bat jarraian agertzen den helbidera bidali dezakezu: nora1568@gmail.com.




Partaideak



Abaroa, Oihane · Abrales, Joseba · Agirre, Mintxa · Agirregomezkorta, Amaia · Aizpuru, Ane Miren · Alberdi, Joakin · Albizu, Marije · Aldasoro, Amaia · Aldekoa, Jatse · Altuna, Gema · Altuna, Nerea · Alvarez, Vanesa · Alzibar, Aitor · Amondarain, Ainara · Amondarain, Mertxe · Andres, M^o Dora · Arakistain, Itziar · Aranburu, Saioa · Arana, Begoña · Aranguren, Anuska · Zrizmendi, Jesus M^o · Armaolea, M^o Ixabel · Arnaiz, Sara · Arregi, Tere · Arrieta, M^o Jose · Arrieta, Begoña · Arrondo, Mila · Arruabarrena, M^o Jose · Arruza, Oihane · Arsuaga, Zuriñe · Arretxe, Ibon · Auzmendi, Ane · Azpillaga, Maider · **Badiola, Ana** · Balentziaga, M^o Karmen · Balerdi, Itziar · Balerdi, Maitane · Bardon, Jose Luis · Belaustegi, Asier · Bengoetxea, Gotzone · Beristain, Alazne · Bernaola, Arantza · Berrojalbiz, Olatz · Bikandi, Ander · Bilbao, Teresa · Bilbao, Begoña · Bilbao, Maitane · Bilbao, Iratxe · Blanco, Edurne · Bustindui, M^o Karmen · **Caceres, Rafaela** · Cadarso, Ane · Carrera, Izaskun · Casado, Miren · Castro, M^o Elena · Cengotitabengoa, Alaitz · **de Diego, Nerea** · de Quadra, Olatz · Delgado, Inma · Descalzo, Feli · Diez, Mertxe · **Egaña, Oihana** · Egaña, M^o Jesus · Egia, M^o Jesus · Egiguren, Mertxe · Eizagirre, Ana · Elizalde, M^o Jose · Elortegui, Miren Itzi · Errasti, Amaia · Errazkin, Oihana · Eskibel, Joxerra · Esnaola, Ana · Etxeberria, M^o Rosa · Etxeberria, Mila · Etxebeste, Izaskun · Etxebeste, Josune · Ezeiza, Pello · Ezeiza, Izaskun · **Garcia, Idoia** · Garitaonandia, Izaskun · Garmendia, Mirari · Garmendia, Josune · Garmendia, Nekane · Garrofé, Ana · Gascón, Juan Jose · Gereka, Mikel · Gil, Ana · Goikoetxea, M^o Eugeni · Gomez, Goizalde · Goñi, Mikel · Guenaga, Jone · Gutierrez, Nuria · **Herrador, Maria** · Hormaetxea, Natxo · Hurtado, Soraia · **Ibaibarriaga, Elisa** · Ibaguren, Joseba · Idoeta, M^o Angeles · Incrusta,



Lucia · Irazabal, Asier · Iribarren, Usua · Iribarren, Leire · Irueta, Arantza · Irulegi, Ixar · Iturbe, M^o Eugeni · Iturgaitz, Bego · Izagirre, Izaskun · **Labilla, Alazne** · Laiz, Elena · Lakuntza, Isabel · Lakuntza, Marta · Landa, Maite · Larrea, Elixabete · Larrinaga, Izaskun · Lejardi, Gentzane · Lete, Txetxu · **Maiza, Pilar** · Makatzaga, Alaitz · Mancilla, Nagore · Martikorena, Arantxa · Martin, Amando · Mejias, Matxalen · Miguel, Joseba · Mintegi, Alicia · Monasterio, Iraide · Mujika, Itziar · Munduate, M^o Jose · **Oiarzabal, Lutxi** · Olano, Marian · Oleagoitia, Anabel · Oliden, Arantxa · Ormaetxea, Juanma · Orue, Jaione · Otazua, Garaipen · Otsoa, Nekane · **Peña, Veronica** · Petrikorena, Maite · Pontesta, Iker · Puerta, Patxi · **Regillaga, Amaia** · Renobales, Agurne · Robles, Pili · Rodrigo, Leire · Rodriguez, Isidro · Ruiz, Carmen · **Saez de Okariz, Itziar** · Sainz, Amaia · Salaberria, Maider · Salbotx, Nora · Santamaria, Saioa · Sasieta, Eugenio · Segurola, Maiu · Susperregi, Artizar · **Terrachet, Maria** · Txakartegi, Bittor · Txapartegi, Izaskun · **Urkiaga, Arantza** · Urraza, Jone · Urreiziti, Maite · Urretabizkaia, Karmen · Urretabizkaia, Maite · Urrutia, Ainhoa · Ustariz, Miguel · **Valencia, Marga** · Vega, Anselmo · Viadero, Marian · Villa, Olga · **Zabala, Amaia** · Zapiko, Nuria · Zapirain, Eider · Zorroza, Beatriz



Balorazioa

Arantxa Oliden

Dagoeneko Eskola Txikietako V. topaketak ospatu ditugu Durangoko Institutuan, 2010eko ekainaren 28an eta lero hauetan egun horretako balorazioa jasotzeko ahalegina egingo dugu.

Lehenik eta behin esan behar dugu parte hartzaile kopurua mantentzen dugula, aurten ere 173 pertsona egon bai gara guraso eta irakasle artean.

Egitarau aldetik, saiatu gara praktika eta teoriari lekua ematen eta horretarako **Eugenio Sasieta** eta **Nora Salbotx-en hitzaldiak** izan ditugu, tartean eskoletako esperientziak azaltzeko **Tailerrak** egon direlarik. Aurtengo berrikuntza partaide guztien artean aurrera eraman den Irakurketa Dialogikoa izan da.

Bazkaria egitearen orde (bakoitza bere lekuan eserita, alegia) aurtengo beste berrikuntza **luntx-a** egitea izan da eta badirudi jendeari gustatu zaiola esperientzia. Ez dugu horrenbeste denbora eserita eta "jaten" pasa eta gainera zutik egoteak aukera gehiago eman digu elkarrekin egon eta iritziak konpartitzeko. Honek gure topaketak duten helburu nagusia bete betean ahalbideratzen du: **elkar ezagutu, elkarrekin egon eta esperientziak, iritziak, zalantzak, ... trukatu.**

Orokorrean topaketetako balorazio ona egiten da partaideen aldetik, baina esan behar da batek baino gehiagok aipatzen duela eguerdira arte izatea. Datorren topaketan kontutan izateko datua izango da.

Hitzaldi eta tailerren informazio gehiago www.eskolatxikiak.org webgunean ikus dezakezue edota irakasleak@eskolatxikiak.org helbidean eskatu.



Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkarten Koordinakundea
Bizkaiko Eskola Txikietako Guraso Elkarten Koordinakundea
EHIGE, Euskal Herriko Gurasoen Elkarte
Bizkaiko eta Gipuzkoako Eskola Txikietako Irakasleak

www.eskolatxikiak.org

